

TXOSTENA 2023



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

AURKIBIDEA



AURKEZPENA 3

GURE JARDUERAK 7

Nazioarteko lankidetzeta-politika publikoa	8
Garapenerako politiken koherentzia eta Garapen jasangarriko agenda	11
Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza	12
Ikuspegi feministako lankidetzeta	15
Sektorea eta zerbitzuak indartzea	17
Sareak eta aliantzak	17
Publikoari, GGKE-ei eta instituzioei arreta	19
Formakuntza saioak eta jardunaldiak	21
Ikerketak eta azterlanak	26
Gizarte-eraldaketarako komunikazioa	27

NORTZUK GARA 30

Gobernu Batzordea	31
Lantaldeak	31
Erakundeetan partaidetza	33
Talde teknikoa	33
GGKEak	34

KONTU ARGIAK ETA GARDENTASUNA 35

ESKER ONAK 36

IN MEMORIAM 37

AURKEZPENA



Garapenerako gobernuz kanpoko 83 euskal erakundek (GGKE) osatutako kolektiboa gara, 1988an sortua.

Salatzen dugu egungo garapen-ereduak pobrezia, desberdinkeriak eta bidegabekeriak eragiten dituela; ingurumena suntsitzen duela, eta giza eskubideak urratzen dituela. Hala ere, sinetsita gaude norabidea alda daitekeela borondate politikoa eta norbanakoaren zein taldearen inplikazioarekin.

Bizi garen munduan dena elkarri lotuta dago, eta arazo eta erronka nagusiak mundu mailakoak dira; hortaz, konponbideek ere globalak izan behar dute. Hauek dira, besteak beste, gure erremintak aldaketa soziala eta giza garapen jasangarria eragiteko: nazioarteko lankidetzak, gizarte-eraldaketarako hezkuntza, ekintza humanitaria, bakea sustatzea, giza eskubideak babestea edota emakumeen eskubideak defendatzea ikuspegi feminista batetik.

“3 MILIOITIK GORA PERTSONAREKIN LAN EGIN DUGU 63 HERRIALDETAN ETA 839 LANKIDETZA-PROIEKTU BAINO GEHIAGOREN BIDEZ.

117.774 PERTSONAK BABESTEN DUTE EUSKADIKO GGKE-EN LANA EKONOMIKOKI EDO BOLUNTARIOTZAREN BIDEZ; AZKEN HORRETAN BATEZ ERE EMAKUMEEK HARTZEN DUTE PARTE.*

Jokabide kode komun baten arabera egiten dugu lan, eta hartan jasota daude gure ekintza eta bazkide diren GGKE-en lana gidatu behar duten printzipioak eta balioak. Halaber, gardentasuna eta kontu-ematea dira gure lanaren oinarria.

* GGKE-en Sektorearen Txostena 2023. Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.



«SARE SOZIAL HAUEN BIDEZ IZAN DEZAKEZU GURE JARDUEREN BERRI: FACEBOOK, TWITTER, INSTAGRAM, LINKEDIN ETA YOUTUBE»»

Hauek dira gure
LEHENTASUNEZKO HELBURUAK

Kalitatezko garapenerako euskal lankidetzaren politika **SUSTATZEA**, sendoa, berritzailea eta egonkorra, erakunde publiko, pribatu eta GGKE-etan.

Erakunde bazkideen jarduerak **KOORDINATZEA** kolaborazioaren, elkarrikeraren eta elkarren arteko ekintzaren bitartez esku-hartzeak eraginkorra izateko.

GGKE-ei beren lanean **LAGUNTZEA**; beren jarduketak eta gaitasun politiko eta teknikoak indartzea, eta aliantzak erraztea beren baliabideak kolektiboaren zerbitzuan jarri, eta alderantziz.

Kontzientzia kritikoa eratzeko **LAGUNTZEA** justizia globala, giza eskubideak eta berdintasuna nagusitu daitezela.

BALIO HAUEK GIDATZEN DUTE GURE LANA

Nazioarteko lankidetzaren **elkartasunean, elkarrikeratasunean** eta **eskuzabaltasunean** oinarritzen da. Justizia sozialarekin dugun konpromisoaren ondorioz Euskaditik herrialde pobretuekin eta egoera zaurgarrian dauden kolektiboekin batera egiten dugun lan horizontala da.

Ikuspuntu sinplista edo eurozentrismoaren aurrean, **garapen are barneratzaileagoa** sustatzen dugu, aniztasunak planeta aberastu eta giza eskubideak indartzen dituelako.

Nazioarteko lankidetzaren funtsezko tresna da pertsonen garapena zailtzen duten mekanismoei buruz **hezteko, sentsibilizatzeko** eta **kontzientziazteko**.

Besteak beste, **demokrazia, parte-hartzea, independentzia, askatasuna, gardentasuna, koherentzia** eta **ikuspegi feminista** sustatzen ditugu.

Munduan dauden beste hainbat talde sozialekin bezala, gure egiten dugun **Beste mundu bat posible da** goiburua eta inor atzean ez uzteko borondatea.

Hauek dira gure
LAN-ILDO NAGUSIAK

- Nazioarteko lankidetzaren politika publikoa.
- Garapenerako politiken koherentzia eta Garapen jasangarriko agenda.
- Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza.
- Ikuspegi feministako lankidetzaren.
- Sektorea indartzea.
- Gizarte-eraldaketarako komunikazioa.



5 IKUSPEGITATIK EGITEN DUGU LAN

Giza eskubideak

Unibertsalak dira, eta berdintasuna eta bazterkeria eza irudikatzen dute; hortaz, lehentasunezko ekintzak proposatzen ditugu zaurgarri izateko edo gizarte-bazterketan erortzeko arriskuan dauden taldeentzat.

Gizarte-eraldaketa

Kontzientzia kritiko indibidual eta kolektiboa sustatzen dugu, pertsona eta herri ororekin justua, bizidun eta jasangarria den elkarbizitza lortzeko.

Lankidetzeta feminista

Genero-ikuspegia gainditzea proposatzen dugu eraldaketa soziala lortzeko aurrera egiteko.

Tokikoa-mundu mailakoa

Munduan dena elkarri lotuta dago; beraz, bidegabekeriaren kausa estrukturaletan eta beren tokiko zein mundu mailako inpaktuetan sakontzen dugu, bai eta herritarren erantzunkidetasunean ere.

Naturaren eskubideak

Gainditu egin nahi dugu ingurumenarekiko erantzukizunaren planteamendu murriztailea –eta, nolabait ere, ekonomizista–; ikuspegi ekologistatik haratago joan, eta jatorrizko herrien ikuspegi txertatu.



BARNE ANTOLAKETA

Eztabaidarako eta hausnarketarako guneak sustatzen ditugu GGKE-en artean irizpide komunak adosteko.

Jardunaldiak eta formakuntzak antolatzen ditugu, ekimenak martxan jartzen ditugu eta beste kolektibo zein gizarte-mugimendu edo sare batzuekin bat egiten dugu gure eragina, inpaktua eta eraldaketarako aukera handiagoa izateko.

Halaber, gune instituzionaletan ere hartzen dugu parte gure ikuspegia eta esperientzia hara eramateko eta gure aldarrikapenak helarazteko.

Batzar Orokorra gure gobernu-organoa da, eta **Gobernu Batzordea**, betearazlea. **Lurralde Batzarra** esparru operatiboa da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. **Lantaldeek** zenbait gaitan sakontzen dute, eta **Talde Teknikoak** erakundeari laguntzen dio bere helburuak lor ditzan.

1999az geroztik estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakundearen parte gara. 2009an, Eusko Jaur-laritzak Ignacio Ellacuría saria eman zigun, gure ibilbidearen aitoren.

Euskararekin dugun konpromisoaren erakusle, Araban eta Bizkaian Euskararen bidean ziurtagiria daukagu, eta Gipuzkoan, Zerbitzua euskaraz, biak Bai Euskarari elkarteak emanak.

GURE WEBGUNEAN ETA YOUTUBEKO KANAL HONETAN, 2023KO GURE LANA EZAGUTU DEZAKEZU.

GURE JARDUERAK



NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO POLITIKA PUBLIKOA

Euskal lankidetz-politika **DEFENDATZEN** dugu, arazo globalak konpontzen eta giza eskubideetan, genero-ekitatean eta gizarte-kohesioan aurrera egiten laguntzeko. Giza eskubideen defentsa agenda politikoaren erdigunean egon dadin jarduten dugu, eta nazioarteko lankidetzan hartutako konpromisoak betetzea aldarrikatzen dugu:

Instituzio publikoekin eta alderdi politikoekin egindako lana

→ Lankidetz-harreman egonkorra dugu Euskdin lankidetz-politikak lantzeaz arduratzen diren eragileekin. Azpimarratzekoak dira, adibidez, eragile hauekin hainbat gairi buruz egindako bilerak: eLankidetz – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoa-ko foru-aldundietako zein Gasteizko, Bilboko, Donostiako eta beste zenbait udalerritako udaletako lankidetz-sailak. Bestalde, Eusko Legebiltzarrean, hiru lurraldeetako batzar nagusietan eta hiru hiri-buruetako udalbatzetan gobernuan eta oposizioan diren talde politikoekin ere bildu gara, eta Euskadiko alderdi politiko nagusietako zuzendaritzako kideekin solasaldiak izan ditugu. Egindako lan guzti horretatik, hau azpimarratu nahi dugu:

Instituzioen eta alderdi politikoekin zenbait dokumenturi ekarpenak egin dizkiogu: arau-esparruei, deialdiei eta dekretuei, besteak beste. Gainera, elkarriketarako eta partaidetzarako gune instituzionaletan ordezkariak aktiboak izan dugu.

Azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzak izapidetu eta Eusko Legebiltzarrak 2024ko otsailaren 15ean onartutako Lankidetzarako eta Elkartasunerako

Euskal Legea dela-eta egin dugun lana. Elkarriketa etengabea izan dugu alderdi politikoekin eta legebiltzar-taldeekin, haiei gure jarrerak, ekarpenak eta zuzenketa-proposamenak jakinarazteko. Nabarmentzekoak dira Iñigo Urkullu lehendakariarekin urtarrilaren 10ean egindako bilera eta urtarrilaren 23an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkuran parte hartu izana, bai eta eLankidetzak antolatutako tailer, saio eta bileretan parte hartu izana ere, arauaren zirriborroak lantzeko eta ekarpenak egiteko. Aipatu nahi dugu, halaber, urriaren 2an Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordean agerraldia egin genuela, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Lege Aurreproiektuari buruz aritzeko.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Lege berria izapidetzen ari zirela-eta, ekainaren 13an Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean agerraldia egin genuen, nazioarteko lankidetzaren arloko eskaerak eta espezifikotasunak jakinarazteko eta aintzat hartu daitezela eskatzeko.

2023ko udal- eta foru-hauteskundearen harira, dokumentu bat prestatu genuen, toki mailan egiten diren lankidetz-politikei buruzko eta 2030 Agenda



Irekia



Eusko Legebiltzarra



Eusko Legebiltzarra

kokatzeari buruzko zenbait eskaera eta proposamen biltzen dituen, garapenerako politikek koherentziantz jo dezaten. Dokumentua alderdi politiko nagusiei aurkeztu genien, guk proposatutako neurriak hauteskunde-programetan jaso zituzten. Gainera, Sareen Sarea – Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialarekin lankidetzan, apirilaren 25ean hauteskunde-debate hau antolatu genuen alderdi politikoekin, Donostian, zer proposamen eta jarrera zituzten jakiteko: *Elkartasuna da erantzuna. Erronkak, neurriak eta gizarte-politikak, ziurgabetasun global handiko testuinguruan inor atzean gera ez dadin.* Bestalde, hauteskunde horien harira, Sareen Sareak alderdi politikoei zuzendutako hainbat eskaerarekin dokumentu bat egin zuen, eta, beraz, nazioarteko lankidetzaren politikak buruzko ekarpenak egin genituen.



eLankidetzaren Kontseilu Errektorean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan parte hartu dugu (baita Kontseilu horretako Batzorde Iraunkorrean eta Garapenerako Politiken Koherentzia Batzordean ere). Horri dagokionez, azpimarratzekoa da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak programen tresna berrien dekretuari buruz antolatutako lan-saio batean parte hartu genuela, urriaren 18an. Bestalde, *Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen kide diren Euskadiko GGKE-en lanak (2012-2022) Perun eragindako inpaktuen ebaluazioari buruzko txostena* izeneko gure ikerketaren ondorioak aurkeztu genituen.

Gainera, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kide gara, eta jarraipen estua egin diogu Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko Estrategiaren ezarpenari, beste zenbait gairen artean. Kanpo Ekin-tzarako Batzordeko kide ere bagara, eta, ekitaldi honetan bilerarik egin ez arren, han lantzen diren gaiak eta lankidetzaren politikekin dituzten loturei jarraipena egin diegu.

eLankidetzaren deialdiei jarraipena egiteko batzorde teknikoan parte hartzen jarraitu dugu. Batzordea eLankidetzako teknikariz eta gure erakundeko kide diren erakundeen ordekariz osatuta dago, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, deialdiei buruzko gai teknikoak aztertzea (deialdien ebazpena, erbesteratutako edo tokiko langileak, zeharkako kostuak eta luzapenak, adibidez), eta, bestetik, konponbideak bilatzea eta gardentasuna sustatzea.

Lurraldez lurralde, lan hau egin dugu, besteak beste:

Araban, urtarrilaren 25ean, Gasteizko Udaleko Herri-txandan parte hartu genuen, talde politikoei jakinarazteko GGKE-ek plataforma telematikoaren erabil-

tzeko zailtasunak zituztela administrazio-prozedu-retan (dirulaguntzen justifikazioa eta aurkezpena), plataforma behar bezala ez zebilelako. Bestalde, Gasteizko Garapenean Laguntzeko Elkargunean parte hartuz, arlo horretako udal-politikei jarraipena egin diegu, eta gure iritzi eta eskaerak helarazi ditugu. Arabako Foru Aldundiarekin proposamenak lantzen jarraitu dugu dirulaguntzetarako deialdien alderdi teknikoak hobetzeko (proiektuen aurkezpena, ezarpena eta justifikazioa, esaterako). Gainera, Arabako Foru Aldundiaren Eskutik Mundura partaidetza-foroaren bidez, kontu-emateen gaia eta beste zenbait landu ditugu.

Bizkaian, Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluan arlo horretako udal-politikari egunez eguneko jarraipena egin diogu, eta gure erakundearen bi dokumentu aurkeztu ditugu: bata, giza eskubideen urraketa dela-eta Erdialdeko Amerikan duten egoerari buruzkoa (Nikaraguan, Guatemalan eta El Salvadorren, batez ere); eta, bestea, guk egindako ikerketa bat, *Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen kide diren Euskadiko GGKE-en lanak (2012-2022) Perun eragindako inpaktuen ebaluazioari buruzko txostena* izenekoak. Gainera, udal-kontseilu horren Batzorde Exekutiboan ere parte hartzen dugunez, 2024ko dirulaguntzetarako deialdiaren oinarrietarako ekarpenak egin ditugu. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiarekin zenbait bilera egin ditugu, gure ekarpenak helarazteko eta eremu estrategikoak definitzeko prozesuaren gaia eta beste zenbait lantzeko.

Gipuzkoan, Donostiako Udaleko Garapenerako Hezkuntza eta Lankidetzako Aholku Kontseiluan parte hartzen dugula-eta (baita Kontseilu horretako Batzorde Iraunkorrean eta Garapenerako Politiken Koherentzia Batzordean ere), politika horiekin lotutako gaiak lantzen jarraitu dugu. Adibidez, 2024ko

aurrekontuei buruzko azterketa- eta eskaera-dokumentu bat prestatu, eta Kontseilu horretako Aurrekontuen Taldearekin partekatu dugu. Gainera, kontseilu horretako kide izanda, Donostiako Gizarte Kontseiluak hiriaren egoera aztertzeko asmoz taxututako dokumentu bati ekarpena egin diogu, giza garapen jasangarriaz, garapenerako politiken koherentziaz eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaz dugun ikuspegia zehaztuta. Bestalde, Gipuzkoako Lankidetzaren Mahaiak antolatutako saio batean ere parte hartu dugu, gune hori nola hobetu eta partaidetzarako gune formal bat izateko helburua nola bete hausnartzeko.

Euskadiko instituzioen aurrekontuei eta deialdiei jarraipena

→ Euskadiko instituzio nagusien lankidetzapolitikari jarraipena egin, eta laguntza eman dugu, etengabe hobetzen laguntzeko asmoz. Egindako lanaren artean, hau azpimarratu nahi dugu:

Euskadiko zazpi instituzio publiko nagusiek lankidetzapolitiketarako dituzten 2024ko aurrekontuak hobetzen eragina izan dugu: Eusko Jaur-laritzarenak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundienak, eta Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalenak). Horretarako, gobernu-taldearen hasierako proposamena landu dugu, oposizioko talde politikoak kontuan izan ditugu, eta arreta partiden zenbatekoan eta ehunekoan jarri dugu. Gainera, nazioarteko elkartasunera aurrekontuaren % 0,7 bideratzeko eskaera historikoaren aldeko dokumentu bat egin dugu, eta helburu horretarantz urratsak

egitera animatu ditugu instituzioak. Bestalde, instituzioek garapenerako laguntza ofizial gisa eman beharreko ehuneko sistema homogeneo baten bidez kalkula dadila proposatzen jarraitu dugu, gure helburua baita, hain zuzen, lankidetzara barne-produktu gordinaren % 0,7 bideratzeko nazioarteko akordiorantz aurrera egitea. Bestalde, Euskadiko hiriburuez bestelako udalerrietako dirulaguntza-deialdiei ere jarraipena egin diegu, horiek ere laguntzen baitute tokiko erakundeak indartzen, gure esparru hurbilenetik nazioarteko elkartasuna legitimatzeaz gain.

→ Estatu mailan ere eragin dugu, lankidetzadeszentralizatuaren espezifikotasuna indartzeko (kasu honetan Euskadiko), haren interesak eta autonomia defendatzeko eta duen balio erantsia aitortzeko (batez ere 2023ko otsailaren 20an onartutako Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzaren Estatuko Legearen esparruan).

Giza eskubideen urraketa eta elkartasunaren kriminalizazioa Erdialdeko Amerikan

Erdialdeko Amerikan –zehazki, Nikaraguan, Guatemalan eta El Salvadorren– elkartasuna kriminalizatzearen aldetik bizi den egoerari buruzko gure analisia eguneratu dugu. Herrialde horietan lege-aldaketak egiten ari dira gizarte zibileko erakundeei betekizun diskriminatzaile eta estigmatizatzaileak ezartzeko, zilegi diren jarduerak egiteko atzerriko iturrietatik baliabideak jasotzeagatik. Horrek, egoera politikoa-ekin batera, eragina du GGKE-etan. Hori dela

eta, instituzioei eskaera-sorta bat proposatu diegu. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordean agerraldia izan genuen urriaren 2an, eta eskaera horiek helarazi genizkion, gure erakundearen lan- eta laguntza-proposamen batekin batera. Gainera, Eusko Legebiltzarrean egoerari jarraipena egiteko talde arteko lantalde bat sortzea proposatu dugu, eta Erdialdeko Amerikako egoera aztertzen duen instituzio arteko batzordearen alderdi tekniko batzuk aldatzeko proposamen batzuk landu eta dokumentu batean bildu ditugu.



Eusko Legebiltzarra

GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA ETA GARAPEN JASANGARRIKO AGENDA

Euskal politika publiko integralak **SUSTATZEN** ditugu, giza garapen jasangarria lortzen, 2030 Agenda betetzen, munduko bizi-baldintzak hobetzen eta planeta babesten laguntzeko:

→ Garapenerako politiken koherentziaren arloan lan egin dugu instituzioekin, eta egindako aurrerapenei jarraipena egin diegu. Hona hemen egindako lanetako batzuk:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua-ren baitako Garapenerako Politiken Koherentzia Batzordeko kide gara, eta, aldi batez geldirik egin ostean, berriro lanean has dadila eskatu dugu.

Sareen Sarearen bidez, Garapen Jasangarrirako Helburuen eta 2030 Agendaren Eragile anitzeko Foroan parte hartzen jarraitu dugu. Foro horren helburua da sail arteko eta instituzio arteko gobernantza-mekanismoak ezartzea eta lankidetzaren eta partaidetza publikoa, pribatua eta soziala erraztea. Zehazki, gure ahalegin nagusia izan da politiken koherentziari eta lankidetzaren politiketarako aurrekontuaren % 0,7ko diru-hornidurari bultzada eman dakiola eskatzea eta, hala, Garapen Jasangarrirako 17. Helburua betetzea.

Bestalde, Trantsizio Sozialeko Idazkaritzaren aliantza-proposamenean parte hartu dugu, hori ere Sareen Sarearen bidez. Aliantza-proposamen hori 2030 Agendarekiko konpromisoa duten gizarte-erakundeei zuzenduta dago, eta helburu du erakunde sustatzaile gisa Garapen Jasangarrirako Helburuen aldeko Euskal Aliantza sortzarekin bat egitea eta bultzatzea, *2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial Baterako* adierazpena sinatuz.



Lurralde lurralde, lan hauek egin ditugu, besteak beste:

Araban, Foru Aldundiari jakinarazi diogu prest gaudela garapenerako politiken koherentziaren arloan egiten duen lana ezartzen edo berrikusten laguntzeko. Gainera, jarraipena egin diogu Garapen Jasangarriaren aldeko 2030eko Arabako Aliantzari.

Bizkaian, Bilbon 2030 Agenda kokatzeko ekintza-plana egiteko prozesuan parte hartu dugu. Bilbo-ko Udalak bultzatu du plana, Garapen Jasangarrirako Helburuak hirian kokatzeko bidean aurrera egiteko ibilbide-orri gisa, eta eragile publikoek eta pribatuek egiten dituzten eta garapen jasangarria lortzeko lagungarri diren ekintzak identifikatzeko, balioesteko eta konektatzeko egitura baliagarria izateko asmoz taxutu da. Bilbon, martxoaren 23an, *Bilbo Jasangarria: Agenda 2030 eta Garapen Ja-*



sangarrirako Helburuak izeneko dokumentuaren aurkezpenean parte hartu genuen.

Gipuzkoan, garapenerako politiken koherentziaren ikuspegia ezartzeko bidean aurrera jarraitu dugu. Donostiako Udalean, Garapenerako Hezkuntza eta Lankidetzako Aholku Kontseiluko Garapenerako Politiken Koherentzia Batzordeak azterketa bat egin du garapenerako politiken koherentziari buruz. Horretarako, gazteriaren, hezkuntzaren, berdintasunaren, kultura-aniztasunaren eta giza eskubideen arloetako udal-politikak aztertu ditu. Prozesu horri jarraipena egin diogu, eta gure ikuspegia eta esperientzia eman ditugu.

Espazio horietan guztietan dugun parte-hartzea indartzeko eta barne mailan koordinatzeko, gure erakundeko Garapen Jasangarrirako Helburuen Taldeak bere fokua eta helburuak zabaldu ditu, eta beste izen bat du orain: Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Garapenerako Politiken Koherentzia. Talde horretan, Sareen Sareko 2030 Agendaren inguruko lantaldera eta gune instituzionaletara eramango diren gure jarrera eta proposamenak lan-tzen dira.

Gainera, Eraldagune ezagutarazteko asmoz, ekainaren 4an Euskal Eskola Publikoaren Jaian izan ginen, Mungian. Eraldagunerri buruzko informazioa eman genuen, materiala banatu, eta bertaratutakoak *Jolas TÚ* ataleko jokoetan parte hartzera gonbidatu genituen, batez ere onlineko jokoaren egokitzapen fisiko dibertigarri eta arrakastatsuen bidez, eta EHU/UPVko Bilboko Ingeniaritza Eskolaren eta Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniariaren lankidetzari esker.



→ Azaroaren 9an, *Gasteiz Konexioan* sentsibilizazio-jardunaldietako zortzigarren edizioa antolatu genuen Arabako hiriburuan, oraingoan *Elkarbizitza bidean. ¿Un poco de sal, vecina?* izenburupean. Gizarte bidezkoago eta solidarioago bat eraikitze-prozesuan modu aktibo, parte-hartzaile eta konprometituan arituko den herritartasun bat sortzea zen helburua, eta, horretarako, zenbait gairi buruz hausnarketa eragin genuen: migrazioak zerk bultzatzen dituen, hirira iristen diren pertsonen nolako harrera egiten diegun eta pertsonalki nahiz kolektiboki zer egin dezakegun elkarbizitza hobetzeko. Afrika Bibang abeslaria aurkezle-lanetan zela, Gasteizko zenbait esperientzia ezagutu genituen (ATHCA, Arabako etxeko eta zaintzako langileen elkar-teea; Loturak, harrerako euskal sare herritarra; eta Afrikako erakundearen partzuergoa), bai eta mun-

duko beste leku batzuetakoak ere (Emakumeok Martxan eta Tangerko Casa Vedruna). Gainera, Harresian Zulo taldearen emanaldia izan genuen, hitzordua girotzen.

→ Unibertsitate Kritiko Sarea Gipuzkoako EHUko campuseko unibertsitate-eragilez eta GGKEz osatuta dago (azken horien artean dago, besteren artean, Euskadiko GGKE-en Koordinakundea). Aha-lerinak koordinatzeko, baliabideak optimizatzeko eta unibertsitateak gizartean eragin handiagoa izatea lortzeko egiten du lan. 2023an, barne mailako lanetan jardun du nagusiki, orain arteko ibilbidea ebaluatzen eta helburuak, egitura eta espektatibak birdefinitzen. Hausnarketa sakon horren ondorioz, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak, beste erakunde batekin batera, bere gain hartuko du sarea dinamizatzeko ardura.

→ Athletic Clubek eskatuta, martxoaren 16an sentsibilizazio-tailer bat eman genion haren futbol-talde den Baskonia Kirol Klubari, Bilbon. Helburua zen jokalariei GGKE-en eta lankidetzaren lana azaltzea, boluntarioritza-aukerak ezagutzera ematea eta elkartasun-balioak sustatzea etorkizunean gazte askoren erreferente izango diren horien artean.



Mobilizazioa

→ Gipuzkoako SOS Arrazakeria, Medicusmundi Gipuzkoa eta beste kolektibo batzuekin batera, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Donostiako XXVI. Martxan lagundu dugu. Martxoaren 19an izan zen, Trintxerpetik Donostiako Boulevardera. *Hilmugak*. *Mugetako indarkeriaren aurka* lelopean, bizitarako eta asilorako eskubidearen urraketak salatu ditugu, pertsona guztiek Europar Batasunera sarbide seguru eta legala izateko neurriak eskatu ditugu, eta herritarrak mobiliza daitezzen eta presioa egin dezaten kontzientziatu ditugu.



→ Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, *Zero pobrezia* kanpainaren barruan, pobrezia eta desberdinkeria eragiten dituzten kausak salatu genituen. *Moda azkarraren benetako kostua* lelopean, urriaren 17tik 22ra zenbait kolektibok bat egin genuen, Pobreziaren Aurkako Astearen. Helburua zen salatzea moda azkarrak kutsadura eta lan-esplotazioa eragiten dituela, eta ez dela jasagarria planetarentzat. Donostiako Zero Pobrezia pla-



taformak (Euskadiko GGKE-en Koordinakundeari dagokio plataforma dinamizatzeke ardura), ekimen hauek antolatu zituen:

Urriaren 17an, prentsaurrekoa eman genuen Donostiako Klub Nautikoaren kanpoaldean, kaleko ekintza baten bidez Pobreziaren Aurkako Astea aurkezteko. Egun horretan bertan, Kresala zineklubarekin batera, Lorenzo Vigas zuzendariaren *La caja* filma eman genuen Plataformak urte horretan mahai gainean jarri zuen gaia jorratzen baitzuen. Filma ikusi ondoren, eztabaidatzeko aukera izan genuen. Gainera, Pobreziaren Aurkako Egun horretan zehar, DBUS enpresarekin koordinatuta Zero Pobrezia kanpainaren kartelak jarri genituen hiriko autobus publikoetan.

Urriaren 19an, kale-ekintza baten bidez, Donostiako Zero Pobrezia plataformak hiriko zenbait pertsona ospetsu "berpiztu" zituen. Zehazki, 7 estatua soinean arropak eta alboan mezuak zituztela agertu ziren eguna argitu orduko, egungo kontsumo-ereduari buruz gogoeta eginarazteko asmoz.

Urriaren 22an, ohiko bizikleta-martxa egin zuen Plataformak Haizearen Orrazitik Boulevardera, Txi-ta Sound System-ek musikaz girotuta.

Instituzio publikoekin egindakoa

→ Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Taldearen bidez, Eragin Politikorako Taldearekin lankidetzan, Euskadiko Hezkuntza Legeari buruzko gure ikuspegia eman dugu. Zehazki, hezkuntza eraldatzailerako funtsezko zer elementu behar diren helarazi dugu ekarpen gisa, Koordinakundearen Gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko eredu-dokumentuan oinarrituta.



IKUSPEGI FEMINISTAKO LANKIDETZA

Desberdinkeriak ikuspegi multidimentsional eta interseksionalarekin **AZTERTZEN** ditugu, egiturazko kausei modu integralagoan heltzeko. Emakumeen eskubideen urraketa eta emakumeenganako indarkeria ezabatzeko konpromisoak ezartzen ditugu, eta haien jarduteko gaitasuna indartzen dugu. Era berean, lankidetzaren eredu berrikustea proposatzen dugu, sistema kapitalista eta patriarkala indartzen duten azterna kolonialak eta arrazistak desagerrarazteko:

Instituzio publikoekin egindakoa

→ Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan gure sarea ordezkatzeko duen pertsona batek genero-arduradunaren postua izaten jarraitu du, gure genero-politikak eskatzen duen bezala.

→ eLankidetzako genero-arduradunarekin bilerak egin ditugu lan-agendak partekatuzko, informazioa trukatzeko eta baterako jarduerak aztertuzko.

→ Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak instituzio publikoen hainbat dokumenturi egindako ekarpenek genero-ikuspegia txertatua izatea bermatu dugu.

Genero-politika

→ 2023-2030 Genero-politika berria amaitu dugu (ekainaren 2an onartu zuen Batzar Orokorrak). Horretarako, ezinbestekoa izan da lantaldeetako eta lan-guneetako jendearen parte-hartzea tailerretan eta lan-saioetan. Gainera, Genero-politikaren Jarraipen Batzordea aurrerapenak kontrastatzen aritu da, eta aurrerapauso horiek gure erakundeko partaidetza-guneetan partekatu ditugu gero. Prozesu

horretan guztian Oreka Sarea aholkularitza-enpresaren laguntza izan dugu.

Genero-politika berriaren helburua genero-ekitatean aurrera egitea da, eta, horretarako, ikuspegi feministaren alde egiten duen marko kontzeptual bat du. Zehazki, alderdi hauek hartzen ditu kontuan: ikuspegi multidimentsionala eta interseksionala; emakumeen agentziarekin eta ekitatearen aldeko alaketarako estrategiarekin konpromisoak; arreta pertsonen zaintzan jartzea; azterna kolonial eta arrazistak desagerraraztea, eta ikuspegi feminista duen lankidetzaren modu bat egin ahal izateko behar besteko aurrekontua ziurtatzea. Gainera, oraingo politika berriak lau estrategia hauek jasotzen ditu: erantzunkidetasuna; eragin politiko integral eta eraldatzailea; parte-hartzea eta lidergoa, eta ikaskuntzak.

Behin dokumentua onartuta dagoela, Genero-politikaren Talde Eragilea eratu da, eta dokumentua zabaltzeko eta jarduerak zehazteko eginkizuna izango du, lortu nahi diren emaitzak bete daitezkeen.

Genero Taldeak abenduaren 5ean lan-saio bat antolatu zuen, Basoa – Defendatzaileen Etxean,

Artean (Bizkaia), Genero-politika berriari oinarrituta taldearen eginkizunak zehazteko. Dokumentu berria onartu denez, eta zenbait funtzio birbanatzea planteatzen duenez, lantalde horrek beste izen bat du orain: Gune Feminista.



Barne mailan genero-arloan egindako lana

→ 2019an, *Sexu-jazarpeneko eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko protokoloa* onartu genuen. Orain, protokolo horrekin lotutako bi material prestatu ditugu gure erakundeko kide diren GGKE-entzat, biak ere infografia formatuan. Infografia batean horrelako jokabideen aurrean zero tolerantzia izateko dekalogo bat ageri da, dokumentuko ideia garrantzitsuenak bilduta. Beste infografiak protokoloa nola aktibatu eta zer urrats egin garbi jakiteko prozedura azaltzen du. Bi material horiek egitearen helburua GGKE-ei protokoloa ezagutaraztea, hartutako konpromisoak gogoraraztea eta gai horretan sentsibilizatzea da, eta 2024an zenbait prestakuntza-saio ere egingo dira horretarako.

→ Gure erakundearen aurrekontuak genero-ikuspegia kontuan hartuz egiteko barne-prozesu batean urratsak egiten jarraitu dugu, arlo horretan bidea irekitzeko, horrela, GGKE-ei. 2022ko informazioa jaso dugu, analisiarekin jarraitzeko, eta prozesuan aurrera egin ahala lortzen ditugun tresnak egokitzen eta hobetzen jarraitu dugu.



SEXU-JAZARPENeko ETA SEXUAN
ETA SEXU-ORIENTAZIOAN OINARRITUTAKO
JAZARPENeko EGOERETAN PREBENTZIOA
LANTZeko ETA ESKU HARTZeko PROTOKOLOA
ETA BI INFOGRAFIAK GURE **WEBGUNEAN**
IKUS DITZAKEZU.

Sare feministak

→ Emakumeen eskubideen eta genero-ekitatearen defendatzaileen sareekin ditugun aliantzak sustatzen jarraitu dugu, eta, beraz, Bilbo Feminista Saretzen mugimendu feministaren parte izaten jarraitzen dugu. Horrela, Bizkaian martxoaren 8an egin ziren mobilizazioetan parte hartu genuen (Emakumeen Nazioarteko Eguna), *Denon bizitzak erdigunean. Zaintzak irauli, dena aldatzeko. Feminismoa da alternatiba!* lelopean. Halaber, Bizkaian azaroaren 25ean egin ziren mobilizazioetan parte hartu genuen (Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna), *Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak! Bizirik, libre eta antolatuta* lelopean. Bi hitzordu horiek Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdi bateratu bati dagozkie.

Donostian, mugimendu feministan aktiboak diren GGKE bazkideetako pertsonen bitartez, azaroaren 25eko manifestazioan parte hartzeko koordinatu ginen.

→ SETEM Hego Haizea, Mugarik Gabe, Colectiva XXK eta REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) erakunde eta elkarrekin batera, erakundeetan lan-politika feminista bateranzko printzipio eta akordioetan nola aurreratu hausnartzeko talde eragile batean parte hartzen jarraitu genuen. Zehazki, *Denera iritsi ezinaren aurrean, lan-politika feminista* dokumentua egin dugu.



SEKTOREA ETA ZERBITZUAK INDARTZEA

GGKEak etengabe hobetzen **LAGUNTZEN** dugu, euskal lankidetzaren funtsezko eragile diren aldetik. GGKE-en lana, inpaktua eta kohesioa indartzen ditugu, eta testuinguru, behar edo erronka berriei aurrea hartzen diegu. Arreta- eta informazio-zerbitzua eskaintzen diegu GGKE-ei, instituzioei, beste lankidetz-eragile batzuei eta herritarrei:

Sareak eta aliantzak

→ Estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakunde kide gara, bai eta GGKE-en Koordinakunde Autonomikoen Sareko kide ere, eta, beraz, haien lanaren jarraipena egin dugu eta haien ekimenak babestu ditugu. Horien artean, hauek dira nabarmentzekoak:

Estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakundearen Gobernu Batzordeko kide izaten jarraitu dugu, II. Lehendakariordetzaren bitartez, eta haren agendari eta erabakiguneei jarraipena egitea dakar horrek. Besteak beste, hauek azpimarratu nahi ditugu: lankidetzaren deszentralizatuaren eta GGKE-ek duten eginkizun eta garrantziaren defentsa; garapenerako eta laguntza humanitariorako GKE-en Europako konfederazioarekin (CONCORD) koordinazioa; uztailaren 1etik abenduaren 31ra Europar Batasuneko Kontseiluaren lehendakaritza Espainiak izatearekin lotutako proiektua; Erdialdeko Amerikan elkartzuna kriminalizatzearen aldetik bizi duten egoera, GGKE-ei ere eragiten diena; estatuko Garapen Jasangarrirako eta Elkartzun Globalerako Lankidetzaren Legearen eta haren garapeneraren jarraipena (lankidetzaren sistemaren erreformaren testuinguruan); eta lankidetzaren eredu feminista eta eraldatzailea, estatuko beste administrazio batzuk orientatzeko balio dezakeena.

Bilera birtualez gain, zenbait saio presentzial egin ditugu; esaterako, maiatzaren 16an eta 17an Madril eta irailaren 21ean eta 22an El Pardon (Madril). Gainera, irailaren 26an Valentziara joan ginen *Retos y desafíos ante el nuevo ciclo de la cooperación al desarrollo. Una nueva cooperación internacional para dar respuesta a desafíos globales más complejos* izeneko jardunaldietan parte hartzerantz eta estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakundeak lankidetzaren deszentralizatuari buruz urtero egiten duen azterketa aurkeztera.



Sare horri lotutako beste gune batzuetan parte hartu izana ere azpimarratu nahi dugu; adibidez, estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakundearen Batzar Nagusian izan ginen, Madril, apirilaren 27an; eta ekainaren 30ean, berriz, kide

diren GGKE-en zuzendaritzen eta lehendakaritzen bileran izan ginen, orduan ere Madril. Bestalde, Feminismoen Taldean ere parte hartu dugu, gure ikuspegia emateko eta gure jardunean ikuspegi feminista sartzeko bidean aurrera egiteko. Gainera, jarraitzen dugu parte hartzen estatuko sare horrek babestutako eta estatuko zenbait erakundez osatutako beste lan-gune batean, GGKE-en kudeaketarekin, kontabilitatearekin eta administrazioarekin lotutako gaiak lantzeko asmoz sortua.



GGKE-en Koordinakunde Autonomikoen Sareak bere lan-plan propioa izan du. Sare horren bilertan parte hartu dugu, eta sare horretako Komunikazio Taldean ere bai, koordinakunde autonomikoen tresnak, dokumentuak eta lan-ildoak partekatze, estrategiak adostu eta bateratzeko, eta baterako komunikazio-kanpainei edo -ekimenei gure ekarpenak egiteko. Gainera, GGKE-en Koordinakunde Autonomikoen Sarearen XVIII. Topaketan izan ginen, Logroñon, azaroaren 10etik 12ra.

→ Sareen Sarea kolektiboko kide gara. Sare horrek Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen sareak biltzen ditu, eta helburu du pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen gizarte kohesionatu, inklusibo, solidario eta parte-hartzaile bat sustatzea. Sareen Sareko Gobernu Batzordean parte hartzen dugu, bokal baten bidez, Eragin Politikoko Batzordean ere bai, baita 2030 Agendari buruzko lan-gune batean ere. Hala, Sareen Sarearen agendaren jarraipena egin dugu, eta gai hauek nabarmendu nahi ditugu: Sexuagatiko jazarpenaren, sexu-jazarpenaren eta jazarpen LGBTIfobikoaren aurkako jardunbide-protokoloa eta Etika eta Gobernu Onaren Kodea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen aurreproiektuari zuzenketak; Kutxa Fundazioarekin sinergiak; Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia bultzatzea; Euskadi 2040: ongizatea helburu duen lehiakortasuna txostenera iristeko Euskadi 2040 Bisioa eta Erronkak prozesua; eta Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna, maiatzaren 12an Donostian ospatua. Bestalde, Sareen Sareko kide garenez, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dugun parte-hartzea koordi-



natuago dago gune horretan parte hartzen duten hirugarren sektoreko gainerako erakundeekin.

→ Eusko Jaurlaritzaren baitako Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko Euskal Programaren Hautaketa Batzordeko kide da Euskadiko GGKE-en Koordinakundea. 2023an, ekimen horretan parte hartu dugu, gure esparrutik ekarpenak egin ditugu eta haien lana babestu dugu.

→ Eusko Jaurlaritzaren Ellacuria sariko epaimahai-kide gara. Sari horren helburua da herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren alde eta pobrezia gainditzeko borrokan diharduten erakunde, kolektibo, pertsona individual edo ekimenen jarduerak

barmenak aitortzea. Beste urte batzuetan bezala, 2023an ere ardura horrek dakartzan bileretan parte hartu dugu.

→ Eusko Jaurlaritzaren baitako Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren parte gara. Ekimen horren helburua da gazteak Euskadiko GGKE-ek esku hartzen duten herrialdeetan lankidetzaren sentsibilizatzea eta herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzea. Zehazki, prestakuntza-bilera eta -saio batzuetan parte hartu dugu.

→ Euskadiko Finantza Etikoak elkarteko kide gara, eta, horregatik, martxoaren 16an elkartearen batzarrean izan ginen eta GGKE-ek elkartearen informazioa helarazi diegu.



Ireki



Ireki



Publikoari, GGKE-ei eta erakundeei arreta

→ Bi batzar orokor egin ditugu: lehena, ezohikoa, otsailaren 2an izan zen, Donostian; eta bigarrena, ohikoa, ekainaren 2an, telematikoki. Gainera, 16 lurralde-batzar egin ditugu, batzuk presentzialak eta beste batzuk birtualak (6 Araban, 3 Bizkaian eta 7 Gipuzkoan). Kide diren GGKE-ek oso parte-hartze aktiboa izan dute haietan eta lantaldeetan.

→ Kide diren erakundeei hainbat gairi buruzko informazio- eta aholkularitza-zerbitzu iraunkorra eskaini diegu. Besteak beste, hauek ditugu gogoan: lankidetzak, dirulaguntzen deialdiak, zerbitzuak eta baliabideak, enplegu-erakundeak eta boluntario-lanak, prestakuntza-saioak, mate-

rialaren mailegua, dohaintzak, genero-ekitatea, komunikazioa, eragin politikoa, gizarte-mobilizazioa, gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta izapide administratiboak edo legalak. Horretaz gain, gure erakundeetan jaso ditugun jarduerak edo ekimen-proposamenak bidali dizkiegu, parte hartzea errazteko. Nabarmenezkoak da, adibidez, *Mindchangers* izeneko Europako proiektuaren esparruan Logroñon egindako topaketa batean parte hartu izana, eta orobat Gasteizko Zabalga-
na Institutuan egindako STEAM proiektu batean parte hartzea.

→ Gure sektoreari buruzko informazio eta aholkularitza bila zebiltzan hainbat pertsona orientatu ditugu, bereziki GGKE-etako boluntario-lanei buruz

eta erakundeek esku hartzen duten herrialdeetara elkartasunez joateko proposamenei buruz.

ETA EKINTZARA PASATZEN BAZARA? BOLUNTARIOTZA ETA PARTE-HARTZEA GARAPENERAKO LANKIDETZAKO GKEETAN TXOSTENA IKUSTEKO, JO GURE **WEBGUNERA**.

→ Lan-poltsa kudeatu dugu, eta jasotako dohaintzak bideratu ditugu. Gainera, irizpide sozialki arduratsuak dituzten enpresei buruzko informazioa bildu dugu, jakiteko zeinek egiten duten GGKE-ekin lan eta zeinek egiten dizkien Koordinakundeko kide diren erakundeei beharpenak, hobariak edo ekarpen solidarioak.

→ GGKE-en eta instituzioen edo beste erakunde eta eragile batzuen arteko bitartekotza-lanak egin ditugu elkar ezagutzea eta koordinazioa sustatzeko. Horretarako, parte hartzeko aukera ematen zieten zenbait jarduerak, ekimen- eta gune-proposamen bideratu dizkiegu erakundeei.

→ Hainbat jarrera-hartze, elkarretaratze, manifestazio eta kale-ekintzarekin bat egin dugu, gai ugari buruzkoak, kide diren erakundeek zein kanpoko beste kolektibo batzuenak.

→ Lankidetzaren sektorean euskararen aldeko urratsak egiten jarraitu dugu, bai eta gure erakundeetan euskararen normalizazioa lortzeko bidean aurrera egiten ere. Horren erakusgarri dira Bai Euskarari ziurtagiria eta Euskaraldian parte hartu izana. Gainera, 2023an, gure erakundearen Euskara Plana onartu dugu, Euskara Gunea lantaldeak sustatua.



Dokumentu horren helburua da gure erakunde euskararen inplementazioan aurrera egiteko helburuak, epeak, lan-ildoak eta prozedurak zehaztea Euskara Gunearekin batera. Gainera, AEKrekin lankidetzan, inkesta bat egin dugu gure erakundeko lan-guneetan parte hartzen duten pertsonen euskara-maila ezagutzeko, eta, hala, etorkizuneko prestakuntza-saioak, ekintzak eta lan-ildoak planifikatzen lagunduko duen diagnostiko bat izateko.

→ Gure Arabako egoitza Gasteizko Simone de Beauvoir Elkartearen etxean dago; Bizkaikoa, Bilboko BBK Guneak eraikinean, eta Gipuzkoakoa, Donostiako lokal partekatu batean. Testuinguru horrek publiko zabalago eta askotarikoago batera iristeko aukera ematen digu, bai eta beste era bateko erakundeekin aritzeko aukera ere. Gainera, Gasteizko Udalak utzitako lonja bat dugu, Koordinakundeko kide diren GGKE-en materialak gordetzeko.

→ Kudeaketa, Kontabilitate eta Administrazioari buruzko Lankidetzaren Gunea erakundeko kide diren GGKE-ek osatzen dute, eta zenbait gai modu kolektiboan lantzea du helburu. Zehazki, gai hauek landu ditu, besteak beste: hornitzaileei edo enpresei buruzko baliabideak eta informazioa, erakundearen egiturazko beharrak finantzatzeko deialdiak, lan-politika feministak, nazioarteko ordainketen kudeaketa eta plataformak, genero-ikuspegia duten laneko arriskuak prebenitzeko enpresak eta Kit Digitala dirulaguntza.



→ Nabarmentzekoa da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2023ko apirilaren 27an argitaratu zen agindu batek eragindako ziurgabetasuna zela eta Koordinakundeko kide diren GGKE-ek eman dako laguntza. Agindu haren bitartez, Euskadiko Hirugarren Sektorearen Legearen esparruan, hirugarren sektore sozialeko erakundearen errolda bat sortzen zen, eta elkarte eta GGKE guztiek errolda horretan nahitaez inskribatu beharra zeukaten, Euskadin diru-laguntzak eta laguntzak jaso ahalko bazituzten. Aginduaren artikuluetan zehazten ze-

nez, baina, egoitza eta jardueraren lekua Euskadin dutenak bakarrik inskribatu zitezkeen erroldan, eta horrek kanpoan uzten zituen beste erakunde batzuen delegazioak izanik egoitza nagusia autonomia-erkidegotik kanpoan duden guztiak. Horregatik, Euskadiko instituzioekin harremanetan jarri ginen, informazioa bildu genuen, Hirugarren Sektorearen Behatokiak antolatutako bileretara joan ginen, eta, ekainaren 29an, informazio-saio telematiko bat antolatu genuen kide diren GGKE-entzat. 2024an legea aldatuenez, egoera konpondu geratu zen.

Prestakuntza-saioak eta jardunaldiak

EDE Fundazioarekin lankidetzan, Prestakuntza-plan bat egin dugu gure erakundearen prestakuntza-ildoak zehazteko, kide diren GGKE-en beharren eta eskaeren arabera. Gainera, planak zenbait prestakuntza-modalitate deskribatzen ditu, eta hizlariak hautatzeko eta ebaluaziorako irizpideak ezartzen ditu, besteak beste. Prestakuntzaren arloan beste erakunde batzuekiko eta instituzioekiko koordinazioa hobetzea ere badu helburu planak.

GGKE-ek zer prestakuntza-behar dituzten identifikatu eta instituzioen eta beste zenbait eragileren proposamenak aztertu ostean, ekintza hauek antolatu ditugu:

→ Gure erakundearen eta sektorearen jasangarritasuna hobetzeko tresnak eta estrategiak bilatzen jarraitu dugu. Horregatik, 2022tik NeoSapiens-ekin batera egiten ari garen prestakuntza-prozesuaren esparruan, urtarrilaren 11n GGKE-ek zuzendutako beste saio bat antolatu genuen, Gasteizen, Europako funtsen deialdietarako proposamenak nola egin sakonago aztertzeke. Gainera, irailaren 18an beste



saio bat antolatu genuen Arabako hiriburuan, hura ere NeoSapiens-ek emana, Europako proiektuetan sartzeko proposamenak nola idatzi eta egin ikasteke, horretarako metodologia ezagutzeko. Bestalde, maiatzaren amaieran, Logroñoko topaketa batean parte hartu genuen, Europako zenbait erakunde harremanetan jarri dituen Erasmus+ proiektu baten barruan. Gainera, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak Europako zer deialditan parte hartu dezakeen aztertu dugu.

→ Urtarrilaren 27an, *Finantza-lankidetzari buruzko barne-tailerra* antolatu genuen Donostian, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legeak aipatzen dituen tresna berrietan sakontzeko. Estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakundeko Gobernu Batzordeko kide eta gaian aditu den Carlos Botellak marko teorikoa ezarri zuen, eta Oxfam Intermón-eko Nerea Basterrak esperientzia pilotu bat aurkeztu eta tresna horrek eskaini ditzakeen aukerak azaldu zituen. Azkenik, Miquel Carrillo espezialistak Euskadin ezarri nahi den finantza-lankidetzako eredua azaldu zuen.

→ Otsailaren 16an, Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, *Topo eginez* tailerraren beste edizio bat antolatu genuen Arabako hiriburuan. Izenburu hau zuen oraingoan: *GGKEen eta ekonomia solidarioarekin eta agroekologiarekin zerikusia duten pertsona eta entitateen arteko topaketarako eta ezagutzarako jardunaldia*. Helburua zen lurraldean sektore horien artean izan diren lankidetzaren esperientzia arrakastatsuak ezagutzea eta lankidetzaren eta aliantza berriak sustatzea. Saioa antolatzeko, Enarak kooperatibaren laguntza izan genuen.



TOPO EGINEZ
2023



→ Martxoaren 15ean eta 16an, *Inpaktu sozialaren neurketari eta kudeaketari buruzko prestakuntza* saioa antolatu genuen, Bernardo García Izquierdo espezialista eta aholkulariak emana. Nazioarteko lankidetzaproiektuetan inpaktua neurtzeko eta kudeatzeko dauden metodologietan sakontzea zen helburua. Harrera ona izan zuela-eta, apirilaren 18an eta 19an errepikatu egin genuen, interesa zuten pertsona gehiagorengana iristeko.



Inpaktu sozialaren neurketari eta kudeaketari buruzko prestakuntza

2023ko apirilak 18 eta 19 • Bilbo
Boluntaren areto nagusian (sarrera Zabalbide kaleetik)



→ Beste urte batzuetan bezala, 2023an ere Gernika Gogoratuz-ek eta ehuGune-k antolatutako *Bakearen ekonomiaren, euskal enpresaren eta giza eskubideen VI. laborategia* elkarrizketa-gunean laguntzen izan gara. Aurtengo edizioa maiatzaren 24an izan zen, Bilbon, eta gai hauek aztertu ziren nagusiki: aro digitaleko garaiotan bake-ekonomiak dakartzen erronka eta aukera berriak, enpresan eta giza eskubideetan izandako aurrerapenak, eta neoestraktibismoa eta kontrapisu instituzionalak.



Gizarte-Eraldaketerako Hezkuntzari Buruzko VI. Jardunaldiak

Ikaskuntzaren kultura: hezkuntza eraldatzailerantz aurrera egiteko giltzarri

→ Martxoaren 30ean, eLankidetzarekin eta Hegoa institutuarekin batera, Gizarte Eraldaketerako Hezkuntzari buruzko VI. Jardunaldiak antolatu genituen Bilbon, *Ikaskuntzaren kultura: hezkuntza eraldatzailerantz aurrera egiteko giltzarri* izenburupean. Helburua etengabeko ikaskuntzari buruz eztabaidatzea eta hausnartzea zen, eta ikasteko eta hobetzeko prozesu teoriko eta praktikoetan sakontzea. Inaugurazioko elkarrizketan pertsona hauek hartu zuten parte: Lia Pinheiro Barbosa, Latinoamerika-

ko Ikasketetan doktorea Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan, soziologoa eta soziologia-ko irakaslea Brasilgo Ceará Unibertsitate Federalean; eta Juanjo Celorio Díaz, Historia Moderno eta Garaikidean lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Gizarte Zientzien Didaktikako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean. Elkarrizketa Esther Canarias Fernández-Cavadak moderatu zuen; INCYDE Iniciativas de Cooperación y Desarrollo kooperatibakoa da.

Esperientzien mahaian, berriz, hauek aritu ziren hizlari: Mara Nieto González, FUEHEMekoa; Patricia Gómez Ruiz, Justicia Alimentaria elkartekoa; Arantza Cañameres Aguilar eta Josu Oscoz Barbero, Arabako Foru Aldundikoak; eta Javier Zubeldia Elzo, Comparte sarekoa. Solasaldi horretan Ekimen Elkarteko Itziar Caballero González aritu zen gidari-lanetan.



→ Maiatzaren 5ean, *Reflexiones sobre interseccionalidad en la cooperación* prestakuntza-saioa antolatu genuen Bilbon, gai horretan sakontzeko asmoz. Itziar Gandarias eta Idily Mérida adituek eman zuten prestakuntza.

→ Maiatzaren 19an, *Nadie dijo que fuera fácil* prozesuaren aurkezpena antolatu genuen Koordinakundeko kide diren GGKE-ei zuzenduta. Lan horren bidez zenbait erakunde eta elkarte (ONGA-WA, Anesvad, Jaime I.a Unibertsitatea, Indaga, Gizarte Garapenerako eta Bakerako Unibertsitate Arteko Institutua eta estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakundea, besteak beste) lanean ari dira helburu hau lortzeko: GGKE-ek herritarrak mobilizatzeko eta komunikatzeko ditugun moduak aztertzea, herritarrekin (berriro) konektatzeko modu berriak bilatzeko.




→ Irailaren 14an, Arabako Foru Aldundiarekin batera, *Lankidetzeta feminista mundua eraldatzeko eredu berri gisa* jardunaldia antolatu genuen Burgelun (Araba). Helburua ikuspegi horri buruz hausnartzea eta ikuspegi horren implementazioan sakontzea zen. Mercedes Ruiz-Giménez Aguilar eta Clara Murguialday Martínez espezialistak aritu ziren hizlari.



→ Irailaren 19an, *Naturaren eskubideak, eman diezaiogun ahotsa bizia ematen digunari* jardunaldia antolatu genuen Gasteizen ikuspegi berri horretan sakontzeko. Gure Plangintza Estrategikoan jasota dago ikuspegi hori, eta zera planteatzen du: planetako ingurumena zaintzeko ikuskeran eta kezkan haragoko beste urrats bat egitea, eta gainditzea ingurumenarekiko dugun erantzukizunari buruzko ikuspegi erredukzionista eta, zenbait alderditan, ekonomizista. Calcuta Ondoan erakundeko Iñigo Eguren aritu zen moderatzaile-lanetan, eta hauek izan genituen hizlari: Jorge Riechmann, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea, poeta, itzul-tzailea eta filosofoa; Aura Lolita Chávez Ixcaquic, Guatemalako lider indigena eta emakumeen eskubideen aldeko defendatzailea eta aktibista; eta Susana Borràs-Pentinat, URV Rovira i Virgili Unibertsitateko irakaslea. Saioaren aurretik, parte-hartzaileek artikulu bana prestatu zuten beren ikuspuntuak azaltzeko.

JARDUNALDIA
Naturaren Eskubideak, eman diezaiogun ahotsa bizia ematen digunari
 2023ko irailaren 19a • 18:30etik 20:30era
 Aldabe Antzokia • Gasteiz



HIZLARIEN ARTIKULUAK
 IRAKURTZEKO, JO GURE
 WEBGUNERA.

→ Urriaren 5ean, María Llanos Corral espezialistak eman eta dinamizatutako prestakuntza-saio telematikoa antolatu genuen, gizarte-eraldaketarako hezkuntza-prozesuetan herritarren parte-hartzearen aldetik dagoen krisiari buruz hausnartzeko.

→ Azaroaren 14an, *Elkartasuna Palestinarekin: décadas de solidaridad vasca ante constantes vulneraciones de derechos humanos* jardunaldia antolatu genuen Donostian. Helburua Israelek Gazaren kontra egindako azken erasoak salatzea zen, batetik, eta, bestetik, erakustea duela hainbat hamarkada-

tatik zer-nolako lana egin duten Euskadin lankide-tzaren arloan diharduten erakundeek eta GGKE-ek Palestinan, hango gizarte-erakundeei lagunduz, eskubide oinarrikoenarako sarbidea bermatuz eta giza eskubideen urraketa sistematikoa salatuz. Hauek hartu zuten parte mahai-inguruan: Bárbara Ruiz, UNRWA Euskadikoa; Mohamed Farajallah, Euskadin bizi den aktibista palestinarra; Mónica Alonso, Mundubat fundaziokoa; eta Xabier Mada-riaga, kazetaria eta EITBko berriemaile ohia Jerusalemen. Aurkezle- eta moderatzaile-lanetan EITBko kazetari África Baeta aritu zen.



→ Abenduaren 14an, Munduko Medikuek erakundeak *Kontatu zigutena... eta kontatu ez zigutena. Arrazakeriaren aurkako pedagogiak partekatzen, Afrikan Murgiltzen proiektutik* prestakuntza-saioa eman zuen Donostian. Kide diren GGKE-ek gainerako erakundeei zuzenduta urtero ematen dituzten prestakuntza-saioetako beste bat izan zen, eta helburutzat zeukan, ohi bezala, ezagutzak eta esperientziak partekatzea, lankidetzat bultzatzea, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren ikuspegia indartzea eta ezagutza partekatuen sare bat sortzea, sektorea indartzeko.

→ Abenduaren 20an, eLankidetzarekin batera, GGKE-etan barne mailan genero-gaiak lantzea helburu duten jardunaldien zortzigarren edizioa antolatu genuen Bilbon. Jardunaldien izenburua *Parte-hartzea ikuspegi feministatik* izan zen, eta helburutzat zeukan bertaratze eta parte-hartze kontzeptuei buruz hausnartzea eta termino horiek

izan ditzaketen genero-alborapenei buruz gogoe-ta egitea. Hasierako hitzaldia Claudia Korol-ek eman zuen (Argentinako Pañuelos en Rebeldía-ko kidea da), eta esperientzien mahaian, berriz, hauek hartu zuten parte: Maider Arnaiz Igartua, Setem Hego Haizea erakundekoa; Sara Goienetxe Díez, Euskadiko GGKE-en Koordinakundekoa, eta Miriam Alonso de Leciñana Madiavilla, gizarte-aholkulari feminista. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko Gune Feministako María Viadero moderatzaile-lanetan zutela, erakundeetan partaidetza-prozesuei nola heldu azaldu zuten. Horretaz gain, partaidetza-prozesuei ikuspegi feministatik bidelaguntza egiteko tailer praktikoko baterako tar-tea ere izan genuen.

JOATERIK IZAN EZ BAZENUEN,
HEMEN IKUS DEZAKEZU

→ Urtero zenbait gairi buruz antolatu ohi ditugun prestakuntza-saio telematiko laburren zikloarekin jarraitu dugu, GGKE-en egunerokotasunerako interesgarriak diren hainbat alderdiri buruzko ga-koak, ikuspuntuak edo ideiak ekartzeko. Zehazki, maiatzaren 4an, *Komunikazioa, giza eskubideen ikuspegiatik tailerra* izan genuen, estatuko Gara-penerako Erakundearen Koordinakundeko Yolanda Polo Tejedorrek eta Cristina Fuertes Lópezek emana. Helburua zen komunikazioak giza esku-bideen ikuspegia izateko gako praktikoa eskaintze eta gure mezuek edo komunikatzeko moduek duten eraginari buruz hausnartzea. Estatuko sare horren Komunikazioa eta Giza Eskubideak proiektuan (www.comunicacionyderechoshumanos.org) oinarrituta zegoen tailerra.



Bestalde, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak beste eragile batzuek antolatutako zenbait jardunaldi eta prestakuntza-saiotan parte hartu du hizlari edo emaille gisa. Horien artean, hau azpimarratu nahi dugu:

→ Irailaren 9an, *Comprometidos con América Latina: 25 años trabajando por la inclusión social* mintegian parte hartu genuen. FOAL fundazioaren 25. urteurrena dela-eta antolatua (Latinoamerikako pertsona itsuekiko elkartasunerako ONCEren fundazioa da FOAL), erakunde horrek azaldu zuen zer lan egin duen desgaitasuna nazioarteko lankidetzaren eremuan sartzeko, desparekotasunak murrizteko eta gizarteratzea bultzatzeko, gure mugetatik harago. Koordinakundetik, berriz, aztertu genuen nola laguntzen dugun gaur egungo erronkei aurre egiten nazioarteko lankidetzaren eremuan, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloan eta ekintza humanitarioaren eremuan, besteak beste.






Irekia

Ikerketak eta azterketak

Nazioarteko lankidetzaren sektorea hobetzen laguntzeko eta sendotzeko, zenbait ikerketa eta azterlan sustatu eta egin ditugu:

→ *Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen kide diren Euskadiko GGKE-en lanak (2012-2022) Perun eragindako inpaktuen ebaluazioari buruzko txostena* egin dugu. Helburua zen ikerketan parte hartu duten GGKE-en ekintzen inpaktua kuantitatiboki eta kualitatiboki neurtzea, eta ikusaraztea zer-nola ekarpena egin duten aztertutako lekuan zenbait sektore-ardatzetan eraldatzeari dagokionez.

→ Koordinakundeko kide diren GGKE-en artean inkesta berri bat egin dugu, 2023ko Sektorearen Txostena egiteko. Aldizkako txosten bat da, sektorearen egoera eta bilakaera ezagutzeko aukera ematen du, eta, horri esker, eragin politiko eta sozialeko gure lanerako datu eguneratuak ditugu. Sektorearen gardentasuna sustatzeko tresna bat ere bada, gainera. Azterlanak hainbat alderdiri buruzko 2022ko datuak biltzen ditu: kide diren erakundearen barne-egiturei buruzkoak, diru-sarrerak eta gastuak, oinarri soziala, lankidetzaproiektuak eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzakoak, eta zer eremu geografikotan jarduten duten, besteak beste. MKE elkartearen laguntza izan dugu datu-bilketan, eta Socialcorena, berriz, datuok berriazko webgune batean ikusgai jartzeko. Txostenaren azken emaitza 2024an argitaratuko da, datu-kazetaritzaren ikuspegitik, emaitzak hobeto eta modu bisualago, ulergarriago eta irisgarriagoan komunikatzeko.



GIZARTEA ERALDATZEKO KOMUNIKAZIOA

Informazioaren eta komunikazioaren aldeko **APUSTUA** egiten dugu, pertsonen eta herrien garapena ziurtatzen dutelako eta bermatu behar diren giza eskubideak direlako. Komunikazio-estrategiak diseinatzen ditugu herritar informatu, kritikoa eta parte-hartzailea sustatzeko, eta hedabideekin lan egiten dugu, balio solidarioak sustatzeko eta gizarte-aldaketa bultzatzeko:

Hedabideekin ekintzak

→ Lantaldeekin batera, hedabideei zuzendutako ekintzak egin ditugu, gure jarduerak, jarrera edo iritziazkiak eta aldarrikapenak ikusarazteko. Horri esker, inpaktu mediatiko ugari lortu ditugu, eta Euskadin lankidetzaren eta GGKE-en arloko informazio-erreferente izan gara. Egindako lan guztiatik, hauek azpimarratu nahi ditugu:

Nabarmentzekoak dira Pobreziaren aurkako Astean Donostian egindako ekintzak edo prentsaurrekoak eta jarduera hauen harira egindako prentsa-

oharrak: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruz Bilbon egindako jardunaldiak; Gasteizen antolatutako *Naturaren eskubideak* eta *Gasteiz Konexioan* jardunaldiak; Donostian antolatutako *Elkartasuna Palestinarekin* hitzaldia eta *Elkartasuna da erantzuna* izenburudun alderdi politikoaren arteko debata; onlineko *Esna TÚ* jokoak; Sei *bereizketa-gradu* kanpaina, eta Kooperantearen Eguna.

→ Asteburu oro Radio Euskadiko *La Galería* irratisaioan kolaboratu dugu, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen eta kide diren erakundeen iritzi-zutabeen bidez.






Webgunea, sare sozialak eta argitalpenak

→ Webgunea etengabe eguneratzen aritu gara, eta astero Munduz Mundu buletina bidali diegu izena emanda dauden pertsoneri. Gainera, amaitu dugu webgunea eta asteko buletina berritzeko lana, bai diseinuari dagokionez, bai edukiei dagokienez. Helburua zen bi tresna horiek hobetzea, eta erabiltzaileen, GGKE-en eta euskal lankidetzan inplikaturako gainerako erakundeen beharretara egokitzea. Horrela, Euskadiko GGKE-ei eta sektoreari buruz eskaintzen dugun informazioa hobetzen jarraitu nahi dugu, eta herritarrekin konektatzen eta zerbitzu hobea eskaintzen lagundu.

→ Hainbat plataforma eta sare sozialetan gaude, eta herritarrekin-eta GGKE-en eta Euskadin lankidetzan dihardutenen lanari buruz mintzatzen gara haietan. Plataforma horietan kanpainak eta ekintzak ere egin ditugu, gure erakundearen eta kide garen beste espazio edo sare batzuen iritzi eta jarrerak partekatzeko.



→ 2022ko txostena eta bideo-txostena argitaratu ditugu. Garrantzi handiko tresna da urteko txostena, gardentasuna eta kontu-ematea errazten dituelako (gure [jokabide-kodeak](#) hala jasotzen du), eta gure lana publiko guztiei jakinarazteko funtsezkoa delako. Gainera, erakundearen argitalpen nagusiak egiten lagundu dugu. Horien artean nabarmentzekoa da gure erakundearen txosten korporatiboa berritu izana.

Komunikazioa larrialdietan

→ Munduan gertatu diren larrialdi batzuk direla-eta (Turkian eta Sirian lurrikara otsailean, Marokon seismoa irailean, Sudanen ezegonkortasuna maiatzean, eta Libian uholdeak irailean), GGKE-en lanari buruzko informazioa bildu dugu, eLankidetzarekin elkarlanean. Helburua zen gizarteak, instituzioek eta hedabideek egindako kontsultei erantzutea, eta herritarren elkartasuna bideratzen laguntzea. Bestalde, Gazako gerra dela-eta, bat egin dugu Palestinari babesa eta elkartasuna adierazteko eta su-etena eskatzeko komunikatu eta mobilizazioekin.

GURE **WEBGUNEA** EUSKADIKO LANKIDETZARI BURUZKO INFORMAZIORAKO TOPAGUNEA DA: AZKEN ALBISTEAK, GGKEAK, LANA, BOLUNTARIO-LANETARAKO ESKAINTZAK, DIRULAGUNTZA-DEIALDIK, AGENDA... GAINERA, MUNDUZ MUNDU BULETINEAN IZENA EMATEKO AUKERA ERE BADUZU WEBGUNEAN.

Instituzioekin egindako lana

→ Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzeta eta Dibertsitateko Zuzendaritzaren Komunikazio Batzordean parte hartzen jarraitu dugu. Lurraldeko elkarteek eta GGKE-ek osatzen dute, eta helburu du komunikazio-estrategia bateratu bat planifikatzea eta egitea, gizarteari Bizkaiko eragileek lankidetzaren arloan sustatzen duten lanaren berri emateko, sektoreko eragileekiko harremana sendotzeko eta elkarrekin kanpainak edo ekimenak egiteko. Zehazki, aipatutako erakundeko Lankidetzeta eta Dibertsitateko Zuzendaritzaren blogerako edukiak prestatu ditugu.

Komunikazio-kanpainak

Eragin Politikoa, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza eta Komunikazioa taldekoon artean, eta Worköholics komunikazio digitaleko agentziak lagunduta, *Sei bereizketa-gradu* kanpaina berritzailea egin dugu. Ekimen horren bidez, nazioarteko lankidetzeta eta GGKEak herritarrengana hurbildu nahi izan ditugu, eta haien lanari dagokion balioa eman, garapen-eredu bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzeko proposamenak erakutsi, eta instituzio publikoek nazioarteko elkartasun-politikerata % 0,7 bideratu beharraren eskakizun historikoari dagokionez Euskadik hartutako konpromisoak gogorarazi. Webgune iradokitzaila bat sortu dugu, grafiko interaktibo, irudi eta atal eta informazio interesgarriak beteak, eta narratiba eta komunikatzeko modu berriak esploratu ditugu bertan, lankidetzaren balioak herritarrekin eta haien kezkekin konektatzeko.


Interaktibo horren osagarri, publizitate-kanpaina handia egin dugu hedabide digitaletan; interaktibora eramaten duten publizitate-iragarkiak jarri ditugu haietan. Gainera, bi publizitate-kanpaina egin ge-

nituen sare sozialetan (Facebook eta Instagram), 2023ko azaroan eta 2024ko urtarrilean. Kanpaina horietan, erabilztaileen arreta erakartzen ahalegindu ginen zenbait bideoren bidez, interaktibora jo zezaten.

Azaroaren 14an, kanpaina hori aurkeztu genuen, Donostian, *Elkartasuna Palestinarekin* jardunaldiaren barruan, euskal lankidetzeta-politika irmo eta sendo baten garrantzia eta beharra gogorarazteko, hain zuzen ere.

Aipatzekoa da ekimen horrek 2024an Veredictas-en Anuario sarietan interes sozialeko kanpainarik onenaren aipamen berezia jaso duela.

NABIGA EZAZU INTERAKTIBO HORRETAN, ETA JAKIN ZENBATERAINO GERTU EDO BEREIZITA ZAUDETEN ZU ETA, ADIBIDEZ, HONDURASKO NORBAIT, EDO KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOKO, EUSKAL HERRIKO EDO MUNDUKO BESTE LEKUREN BATEKO NORBAIT.



NORTZUK GARA

2023aren amaieran

83 GGKE
bazkide

Araba 30

Bizkaia 59

Gipuzkoa 51



Gobernu Batzordea

Lehendakaritza:

Josu Urrutia, [Mundukide](#).

Lehendakariordetza:

Nerea Uriarte, [Garabide elkarte](#).

Idazkaritza:

Mary Tere Guzmán, [Alboan](#).

Diruzaintza:

Jaime Bernar, [Zabalketa elkarte](#).

Arabako ordezkaria:

Gotzone Artiñano, [Mundubat Fundazioa \(otsailera arte\)](#), Marian Uriarte, [Medicusmundi Araba \(otsailetik aurrera\)](#).

Bizkaiko ordezkaria:

Ricardo Fernández, [Medicusmundi Bizkaia](#).

Gipuzkoako ordezkaria:

Laura Laborra, [Medicusmundi Gipuzkoa \(otsailera arte\)](#), Iñigo Odriozola, [Tau Fundazioa \(otsailetik aurrera\)](#).

Lantaldeak

EUSKADI

Gune Feminista

Amaia Iguaran, [Haurralde Fundazioa](#).

Sarai Martín, [Mundubat Fundazioa](#).

María Viadero, [Mugarik Gabe](#).

Mila Domínguez, [ADECO elkarte \(Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetz\)](#).

Sonia González, [Bakea eta Elkartasuna Euskadi](#).

Nerea Uriarte, [Garabide elkarte](#).

Bárbara Ruiz, [UNRWA Euskadi](#).

Cristina Alba, [Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGD](#).

Maider Arnaiz, [SETEM Hego Haizea](#).

María Bravo, [Lumaltik Herriak](#).

Marisela Galindo, [Bakerako Lankidetz Batzarrea \(BLB\)](#).

Silvia Felipe, [Fundación INTERED](#).

Ana Rementería, [Proclade Yanapay](#).

Greta Frankenfild, [Calala Fondo de Mujeres](#).

Gurutze Aizpurua, [Mundu Bakean](#).

Irati Muñecas, [Farmamundi \(Mundi Farmazialariak\)](#).

Iratxe González, [ACNUR Euskal Batzordea](#).

Genero-politikaren elaborazioa:

Talde ordezkatzailerak

Nerea Uriarte, [Garabide elkarte](#).

Josu Urrutia, [Mundukide](#).

Amaia Iguaran, [Haurralde Fundazioa](#).

Cristina Alba, [Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGD](#).

Iñaki Orube, [Mugen Gainetik](#).

Iñigo Eguren, [Calcuta Ondoan](#).

Olatz Domínguez, [Medicusmundi Araba](#).

Ricardo Fernández, [Medicusmundi Bizkaia](#).

Olga García, [Fundación INTERED](#).

Natalia Rodríguez, Sara Goienetxe eta

Silvia de Gregorio, [Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa](#).

Jarraipen-batzordea

Marian Uriarte, [Medicusmundi Araba](#).

Mary Tere Guzmán, [Alboan](#).

Iñigo Odriozola, [Tau fundazioa](#).

Irene Molero, Erika Erkizia, Aurora Hermosilla eta Jon González de Reparaz, [Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa](#).

Genero-politikaren inplementazioa:

Talde Eragileak

Marian Uriarte, [Medicusmundi Araba](#).

Iñaki Orube, [Mugen Gainetik](#).

Mila Domínguez, [ADECO elkarte \(Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetz\)](#).

Joana Etxano, [Mugarik Gabe](#).

Mónica González, [Bakerako Lankidetz Batzarrea \(BLB\)](#).

Patricia Solaun, [Mugarik Gabeko Ekonomialariak](#).

Yolanda García, [Enraiza Derechos](#).

Elena Fernández, [Euskal Elizbarrutietako Misioak-Gasteiz](#).

Silvia de Gregorio, Irene Molero, Sara Goienetxe eta Jon González de Reparaz/Erika Erkizia/Aurora Hermosilla, [Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa](#).

Eragin politikoa

Marta Cruz, [Oxfam Intermón](#).

Esther Calvo, [Proclade Yanapay](#).

Regina Zalbidea, [FISC cooperación y desarrollo](#).

Jesús Ochoa, [Mugarik Gabeko Ekonomialariak](#).

Iñaki Orube, [Mugen Gainetik](#).

Amaia Iguaran, [Haurralde Fundazioa](#).

Eneko Gerrikabeitia, [Mundubat Fundazioa](#).

Gurutze Aizpurua, [Mundu Bakean](#).

Eneko Calle, [Bakea eta Duintasuna elkarte](#).

Mónica González, [Bakerako Lankidetz Batzarrea \(BLB\)](#).

Rafa Ferrer, [Zabalketa elkarte](#).

Ricardo Fernández, [Medicusmundi Bizkaia](#).

Josu Urrutia, [Mundukide](#).

Arantza Acha eta Nekane Viota, [UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herria Elkarte](#).

Mila Domínguez, [ADECO elkarte \(Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetz\)](#).

Jesús González, [Mugarik Gabe](#).

Iñigo Odriozola, [TAU fundazioa](#).

Iñigo Eguren, [Calcuta Ondoan](#).

Iratxe Arteagoitia, [SETEM Hego Haizea](#).

Nieves Pereda, [Fundación Ayuda MAS, ONGD](#).

Maite Fernández, [Hegoa, Nazioarteko Lankidetz eta Garapenari Buruzko Ikasketak Institutua](#).

Sonia González, [Bakea eta Elkartasuna Euskadi](#).

Martín Iriberrí, [Alboan](#).

Javier Herrán, [Lumaltik Herriak](#).

Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Garapenerako Politiken Koherentzia

Arantza Acha eta Nekane Viota, [UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herria Elkarte](#).

Amaia Iguaran, [Haurralde Fundazioa](#).

Laura Ruiz eta Jesús Ochoa, [Mugarik Gabeko Ekonomialariak](#).

Zigor Uribe-etxebarria, [Alboan](#).

Irune Martínez, [OSCARTE ONGD](#).

Erdialdeko Amerika

Ricardo Fernández, [Medicusmundi Bizkaia](#).

Benja Ramos eta Mónica González, [Bakerako Lankidetz Batzarrea \(BLB\)](#).

Ainitze Zabala eta Tamara de Gracia,

[Mugarik Gabe](#).

Begoña Borje, [Alboan](#).

Greta Frankenfild, [Calala Fondo de Mujeres](#).

Esther Calvo, [Proclade Yanapay](#).

Eneko Calle, [Bakea eta Duintasuna elkarte](#).

Gloria Guzmán, [Hegoa, Nazioarteko Lankidetz eta Garapenari Buruzko Ikasketak Institutua](#).

* Erakunde hauek ez dira Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko bazkide. Hala ere, zenbait lantaldean hartzen dute parte gure erakundearen sartzeari eskatu ondoren eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Sartzeko eskaera berrien Jarraipen-batzordearen aldeko lehen txostena lortu ostean. Eskubide osoko entitate bazkide gisa behin betiko sartzeko, bigarren aldeko txostena behar dute, eta bazkide diren erakundeek Batzar Nagusian behin betiko bozketa egin beharko dute.

Eva Pérez-Pons, [Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza](#).
Laura Laborra, [Medicusmundi Gipuzkoa](#).
Iñaki Orube eta Izaskun Azurmendi, [Mugen Gainetik](#).
Laura Vega, [Bakea eta Elkartasuna Euskadi](#).
Iratxe Arteagoitia, [SETEM Hego Haizea](#).
Iñigo Odriozola, [TAU fundazioa](#).
Isabel Medina, [Mundu Solidarioa Helburu](#).
Gurutze Aizpurua, [Mundu Bakean](#).
Mila Domínguez, [ADECO elkarte \(Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetz\)](#).

[Gizarte-eraldaketarako Hezkuntza](#)

Pepe Ruiz, [Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza](#).
Irati Álvarez, [Medicusmundi Bizkaia](#).
Patricia Solaun, [Mugarik Gabeko Ekonomialeariak](#).
Mónica Oyarzábal, [Proclade Yanapay](#).
Oihane Álvarez, [Gazteak eta Garapena](#).
Trini Anguita, [Farmamundi \(Mundi Farmazialariak\)](#).
Josu Millas, [Bakerako Lankidetz Batzarrea \(BLB\)](#).
Mikel Arévalo, [Bakea eta Elkartasuna Euskadi](#).
Irene Ortiz de Urbina, [Nazioarteko Elkartasuna](#).
Pilar Oronoz, [Zabalketa Elkartea](#).
Macarena Arrieta, [UNRWA Euskadi](#).
Flora Pozzobo, [INTERED Fundazioa](#).
Izaskun Inunciaga, [ADECO elkarte \(Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetz\)](#).
Alberto Gastón, [Emaús Gizarte Fundazioa](#).
Libe Narvarte, [Alboan](#).
Lourdes Lecuona, [FASFI – Jesusen Alaben Laguntza Solidarioa Fundazioa](#).
Iratxe González, [ACNUR Euskal Batzordea](#).
Maitane Zaldibar, [Adsis Fundazioa](#).
Joana Etxano, [Mugarik Gabe](#).
Amaia Iguaran, [Haurralde Fundazioa](#).
Beatriz Pérez, [Munduko Medikak](#).
Oscar Pérez, [Misiones Salesianas*](#).

[Kudeaketari, Administrazioari eta Kontabilitateari buruzko Lankidetz-gunea](#)

Miryam Berganza, [Medicusmundi Araba](#).
Susana Piera eta Marta González, [Mugarik Gabe](#).
Lierni Fernández, [Egoaizia](#).
Iñigo Eguren, [Calcuta Ondoan](#).
Arantza Menéndez, [Munduko Medikak](#).
Raúl Moro, [Bakea eta Elkartasuna Euskadi](#).
Leire Pascual, [Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGD](#).
Olga Andueza, [UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herria Elkartea](#).
Marta Ponce, [Arabako SEADen Lagunen Elkartea](#).
Nora Maeso eta Idoia Muniain, [Alboan](#).
Estíbaliz Ibáñez eta Iratxe Arteagoitia, [SETEM Hego Haizea](#).
José Matellán, [Medicusmundi Bizkaia](#).
Maiteder Saiseta, [Garabide elkartea](#).

[Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Sartzeko eskaera berrien Jarraipen-batzordea](#)

Mary Tere Guzmán, [Alboan, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Gobernu Batzordea ordezkatur](#).
Yolanda Jubeto, [UPV/EHuko irakaslea, kanpo eragile bat ordezkatur](#).
Aurora Hermosilla, [Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa](#).

[Euskara Gunea](#)

Maiteder Saiseta, [Garabide elkartea](#).
Iñigo Odriozola, [TAU fundazioa](#).
Macarena Arrieta eta Mirian Amubieta, [UNRWA Euskadi](#).
Alberto Díaz, [Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako Ingeniaritza ICLI](#).
Ainhoa Bilbao, [SETEM Hego Haizea](#).
Eneko Calle, [Bakea eta Duintasuna elkartea](#).
Izaskun Azurmendi, [Mugen Gainetik](#).
Idoia Larrañaga, [Emaús Gizarte Fundazioa](#).

[BIZKAIA](#)

[Eragin politikoa](#)

Marta Cruz, [Oxfam Intermón](#).
Esther Calvo, [Proclade Yanapay](#).
Regina Zalbidea, [FISC cooperación y desarrollo](#).
Amaia Ruiz, [Caritas Bizkaia](#).
Amaia Iguaran, [Haurralde Fundazioa](#).
Gurutze Aizpurua eta Begoña de Juan, [Mundu Bakean](#).
Benja Ramos eta Josu Millas, [Bakerako Lankidetz Batzarrea \(BLB\)](#).
Jaime Bernar, [Zabalketa elkartea](#).
Ricardo Fernández, [Medicusmundi Bizkaia](#).
María Bravo eta Javier Herrán, [Lumaltik Herriak](#).
Sonia González eta Cristina Casado, [Bakea eta Elkartasuna Euskadi](#).
Irene Martínez, [OSCARTE ONGD](#).
Eneko Gerrikabeitia, [Mundubat Fundazioa](#).
Jesús González, [Mugarik Gabe](#).
Mila Domínguez, [ADECO elkarte \(Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetz\)](#).
Nieves Pereda, [Fundación Ayuda Mas, ONGD](#).
Conchi Uriguen, [Educo*](#).

[GIPUZKOA](#)

[Eragin Politikoa](#)

Jesús Ochoa, [Mugarik Gabeko Ekonomialeariak](#).
Iñaki Orube, [Mugen Gainetik](#).
Iñigo Odriozola, [TAU fundazioa](#).
Iñigo Eguren, [Calcuta Ondoan](#).
Mónica González, [Bakerako Lankidetz Batzarrea \(BLB\)](#).
Mikel Arévalo, [Bakea eta Elkartasuna Euskadi](#).
Fernando Vaquerizo, [Mundubat Fundazioa](#).
Gurutze Aizpurua, [Mundu Bakean](#).
Deikun Astarloza, [SETEM Hego Haizea](#).

[Unibertsitate Kritikoa Sarea](#)

[Bazkide diren GGKE hauek sare honetan hartzen dute parte:](#)

Pepe Ruiz, [Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza](#).
Ernesto Fernández, [Mugarik Gabeko Ekonomialeariak](#).
Gema Hierro, [Medicusmundi Gipuzkoa](#).
Patricia Ortiz de Zárate, [Mugen Gainetik](#).
Alberto Gastón, [Emaús Gizarte Fundazioa](#).

[Donostiako Zero Pobrezia Plataforma](#)

[Bazkide diren GGKE hauek sare honetan hartzen dute parte:](#)

Jesús Ochoa, [Mugarik Gabeko Ekonomialeariak](#).
Gema Hierro eta Haizea Bernas, [Medicusmundi Gipuzkoa](#).
Patricia Ortiz de Zárate, [Mugen Gainetik](#).
Deikun Astarloza, [SETEM Hego Haizea](#).
Iñaki Revilla, [Proclade Yanapay](#).
Laida Pino, [Proyde-Proega](#).
Iñigo Odriozola, [TAU fundazioa](#).
Ane García, [Behar Bidasoa O.N.G.](#).
Yolanda García, [Enraiza Derechos](#).
Miriam Amubieta, [UNRWA Euskadi](#).
Sheila Padrones, [Emaús Gizarte Fundazioa](#).

[ARABA](#)

[Gasteiz Konexioan](#)

Ainhoa Bilbao, [SETEM Hego Haizea](#).
Ainara Chana, [SOLIVE - Solidaridad Vedruna](#).
Deyanira Rodríguez, [Nazioarteko Elkartasuna](#).
Itsaso Sánchez, [Medicusmundi Araba](#).
Ainize Foronda eta Oumaima Azoukay, [Alboan](#).
Alberto Díaz, [Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako Ingeniaritza ICLI](#).
Elena Fernández, [Euskal Elizbarrutietako Misiok-Gasteiz](#).

Erakundeetan partaidetza eta beste ordezkaritza-esparru batzuk

eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Olga García, **INTERED Fundazioa**.
Josu Urrutia, **Mundukide**.
Martín Iriberrí, **Alboan**.
Nerea Uriarte, **Garabide elkarte**.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Olga García, **INTERED Fundazioa**.
Jesús González, **Mugarik Gabe** (Olga García, **INTERED Fundazioa**, ordezkatur).
Martín Iriberrí, **Alboan**.
Arantza Acha, **UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herria Elkarte**.
Mónica González, **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea (BLB)**.
Josu Urrutia, **Mundukide**.
Eneko Gerrikabeitia, **Mundubat Fundazioa**.
Mila Domínguez, **ADECO elkarte** (Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetzaren).
Nerea Uriarte, **Garabide elkarte** (Mila Domínguez, **ADECO elkarte** -Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetzaren ordezkatur).
Iñaki Orube, **Mugen Gaietik**.
Jesús Ochoa, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**.
Iñigo Eguren, **Calcuta Ondoan**.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Batzarre Iraunkorra

Iñaki Orube, **Mugen Gaietik**.
Mila Domínguez, **ADECO elkarte** (Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetzaren).
Mónica González, **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea (BLB)**.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Politiken Koherentziarako Batzardea

Eneko Gerrikabeitia, **Mundubat Fundazioa**.
Eneko Calle, **Bakea eta Duintasuna elkarte**.
Jesús Ochoa, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak**.
Iñaki Orube, **Mugen Gaietik**.
Silvia Felipe, **INTERED Fundazioa**.
Arantza Acha, **UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herria Elkarte**.
Zigor Uribe-etxebarria, **Alboan**.
Natalia Rodríguez eta Silvia de Gregorio, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Deialdiei Jarraipena Egiteko Batzarrearen teknikoa

Iñaki Orube, **Mugen Gaietik**.
Jaime Bernar, **Zabalketa elkarte**.
Esther Calvo, **Proclade Yanapay**.
Ricardo Fernández, **Medicusmundi Bizkaia**.
Laura Laborra, **Medicusmundi Gipuzkoa**.
Iratxe Arteagoitia, **Setem SETEM Hego Haizea**.
Gurutze Aizpurua, **Mundu Bakean**.
Cristina Casado, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi**.

Kanpo Harremanetarako Aholku-Batzordea

Josu Urrutia, **Mundukide**.

Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Baterako Babesteko Euskal Programaren aukeraketa-batzordea

Irene Molero, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Euskadiko Gazteak Lankidetzaren

Ricardo Fernández, **Medicusmundi Bizkaia**.

Eusko Jaurlaritzako Ignacio Ellacuría sariaren epaimahaia

Josu Urrutia, **Mundukide**.

Elkarrizketa Zibilerako Mahaia

Nerea Uriarte, **Garabide elkarte**.
Natalia Rodríguez, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Lankidetzarako Bilboko Udal Kontseilua

Irene Martínez, **OSCARTE ONGD**.
Regina Zalbidea, **FISC cooperación y desarrollo** (Irene Martínez, **OSCARTE ONGD**, ordezkatur).
Esther Calvo, **Proclade Yanapay**.
Josu Millas, **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea (BLB)**.
María Bravo eta Javier Herrán, **Lumaltik Herriak**.

Vitoria-Gasteizko Garapenerako Lankidetzaren Elkargunea

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Eskutik Mundura

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Kontseilua

Lorea Undagoitia, **Mugarik Gabe**.

Gipuzkoako Kooperazio Mahaia

Irene Molero, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzaren eta Aniztasunerako Zuzendaritzaren Komunikazio Batzardea

Jon González de Reparaz, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Estatuko Garapenerako Erakundearen Koordinakundea

Gobernu Batzarreko II. lehendakariordetza: Irene Molero, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.
Feminismoen lantaldea: Silvia de Gregorio, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

GGKE-en Koordinakunde Autonomikoaren Sarea

Irene Molero, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.
Komunikazio-taldea: Jon González de Reparaz, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Sareen Sarea

Batzordekide Gobernu Batzarrean: Nerea Uriarte, **Garabide elkarte**, eta Natalia Rodríguez, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.
Garapen Iraunkorreko Helburuei buruzko Batzarre: Natalia Rodríguez, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko talde teknikoa**.

Talde Teknikoa

Koordinazioa: Irene Molero Gurrutxaga.

Eragin Politikoa: Natalia Rodríguez.

Politika Publikoak eta Sektorearen Indartzea: Jon Mikel Benito del Valle Solaun (azarotik aurrera).

Generoa eta Sektorearen Indartzea: Silvia de Gregorio Etxebarria.

Mobilizazioa eta Gizarte-eraldaketarako Hezkuntza: Sara Goienetxe Díez.

Idazkaritza teknikoa eta logistika: Erika Erkizia Zubeldia.

Komunikazioa: Jon González de Reparaz.

Administrazioa: Aurora Hermosilla.

GGKEak

ACNUR Euskal Batzordea	Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza	Mugarik Gabeko Arkitektura
ADECO elkarte (Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetzak)	Farmamundi (Mundi Farmazialariak)	Mugarik Gabeko Ekonomialariak
ADRA	FASFI - Jesusen Alaben Laguntza Solidarioa Fundazioa	Mugen Gaietik
Adsis Fundazioa	FISC cooperación y desarrollo	Mundu Bakean
Alboan	FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa	Mundu Solidarioa Helburu
Arabako SEADen Lagunen Elkartea	Mariaren Lagundia	Mundubat Fundazioa
Asociación no gubernamental de desarrollo IQUITANZ	Fundación Ayuda MAS, ONGD	Mundukide
Ayuda en Acción	Garabide elkarte	Munduko Landagunea
Bakea eta Duintasuna elkarte	GARAPENA	Munduko Medikak
Bakea eta Elkartasuna Euskadi	Gazteak eta Garapena	Nazioarteko Elkartasuna
Bakerako Lankidetzak Batzarrea (BLB)	Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Batzordea	OSALDE Osasun Eskubidearen aldeko Elkartea
Behar Bidasoa O.N.G	Gosearen Aurkako Ekintza	OSCARTE ONGD
Bizilur – Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Elkartea	Haurralde Fundazioa	Oxfam Intermón
Bizkaiko SEADen Lagunen Elkartea	Hegoa, Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenera	Pausumedia
Calala Fondo de Mujeres	Buruzko Ikasketa Institutua	Proclade Yanapay
Calcuta Ondoan	Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako	Proyde-Proega
Caritas Bizkaia	Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako Ingeniaritza ICLI	Rokpa Euskadi
Caritas Gipuzkoa	INTERED Fundazioa	Save the Children
Edex Centro de Recursos Comunitarios	ISCOD - Sindicalistas sin fronteras	SEADen Lagunen Elkartea Donostia
Egoaizia	Itaka-Eskolapioak Fundazioa	SERSO San Viator
ELAN-Euskadi GGKE	Kainabera	SETEM Hego Haizea
Elkartasunerako Elkarcredit Fundazioa	Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGD	SODEPAZ (Solidaridad para el Desarrollo y la Paz)
Emaús Gizarte Fundazioa	Lumaltik Herriak	Solidaridad, Educación, Desarrollo SED
Enraiza Derechos	Manos Unidas	SOLIVE - Solidaridad Vedruna
Euskadi-Cuba	Manuel Iradier Elkartea Afrikanista	TAU fundazioa
Euskal Elizbarrutietako Misioak-Bilbo	Medicusmundi Araba	UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herria Elkartea
Euskal Elizbarrutietako Misioak-Donostia	Medicusmundi Bizkaia	UNRWA Euskadi
Euskal Elizbarrutietako Misioak-Gasteiz	Medicusmundi Gipuzkoa	Zabalketa elkarte
	Mugarik Gabe	

KONTU ARGIAK ETA GARDENTASUNA



2023KO KONTUAK BNFIX KLZ AUDITORES KANPOKO ENPRESAK IKUSKATU DITU ETA EGIAZTATU DU LEIALKI ISLATZEN DUTELA EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEKO ONDAREA ETA BERE FINANTZA EGOERA. INFORMAZIO GEHIAGO [WEBEAN](#).

Sarrerak 2023	Burutua (€)	%
Kuotak	42.480	9
Eusko Jaurlaritza	200.000	44
Arabako Foru Aldundia	30.000	7
Bizkaiko Foru Aldundia	55.000	12
Gipuzkoako Foru Aldundia	45.000	10
Bilboko Udala	25.000	5
Donostiako Udala	34.150	7
Gasteizko Udala	24.000	5
Jarduerengatik sarrerak	2.677	1
Ezohiko sarrerak	0	0
GUZTIZKOA	458.307	100

Gastuak 2023	Burutua (€)	%
Bulegoko materiala	5.025	1
Soldatak	335.289	74
Bidaiak	6.737	1
Jardueren gauzatzea	86.507	19
Funtzionamendua	20.452	5
GUZTIZKOA	454.009	100

EMAITZA (€)	4.298
--------------------	--------------

Eskerrik asko!

ESKER ONAK

Kide zareten GGKE-ei eta haietan diharduzuen boluntarioei eta langileei, zuen parte-hartze, ardu-ra, lan on eta irribarrearekin Euskadiko GGKE-en Koordinakundea den familia handi honen parte zaretelako.

Gizartea eraldatzeko helburu berberak ditugula-eta hamaika saltsatan bidelagun zaituztegun **gizarte-mugimenduei, erakundeei, unibertsitatei eta bestelako kolektibo**ei.

Instituzio publiko eta pribatuei eta alderdi politikoei, euskal lankidetzaz-politikak indartzearen GGKE-ekin lanean aritzeko borondatea izateagatik.

Hedabideei, mundua eraldatzeko eta giza eskubi-deak defendatzeko ditugun proposamenen, aldarrikapenen eta lorpenen bozgorailu izateagatik.

Ikastetxeei, geletara GGKE-en proposamenak eta jarduerak eramateko aukera ematen diguzuelako, munduan ikusi nahi dugun aldaketarako haziak ereiten jarraitzeko.

Laguntzaile eta hornitzaile zaituztegun enpresa, pertsona eta erakundeei, gure egunerokoan bidelagun zaituztegun eta gure ideiak eta ametsak egia bihurtzen laguntzen diguzuelako.

... **Gure jarduna posible egiten duzuen pertsona guztioi** eta gure ondoan zaudeteni bizitzaren defentsan, aniztasuna, errespetua, zaintzak eta ba-kearekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa ahaztu gabe.



IN MEMORIAM



Miren Basaldua

Gizarte- eta ingurumen-justiziaren aldeko hamaika kausaren defendatzaile konprometitua. Mirenek ia hogeita hamar urte eman zituen militantzia nekazinez gorputz-arima lanean Hirugarren Mundua ta Bakea erakundeetan; gaur egun, Mundubat. Elkartasun internazionalista gure lurraldetik harago eramateko ahalegin kolektibo horren gotorleku izan zen.



Ana Mokoroa

ELAN Euskadi sortu zenetik, humanismoaren itsasargi izan da Ana. Haren poza, prestasuna, kontzientzia eta irizpidea izan dira erakundearen oinarrietako batzuk. Langile nekazina giza eskubideen alde, pertsona zaugarrien bizitza bidezkoagoa izan zedin ere bai.



Julio Suso San Miguel

Giza eskubideen defentsan langile nekazina. Mundu osoko pertsona ahulenen aldeko eta bidegabekeriaren aurkako borrokan nabarmendu zuen Julioren bizitza guztia. Medicusmundi Arabarekin 30 urtetik gorako konpromisoa izan zuen, eta horrek zeharo markatu du elkartearen iragana, oraina eta etorkizuna.

Eskerrik asko, Miren, Ana eta Julio, Euskadiko GGKE-en Koordinakundea den proiektu kolektibo honekin agertutako konpromisoagatik eta bidean lagun egiteagatik.

Memoria 2023

ARABA

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignazio Loiolakoa 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Gasteiz**
☎ 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

BIZKAIA

Erronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbo**
☎ 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

GIPUZKOA

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**
☎ 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org



Laguntzaileak



Euskararekin bat

